

## GOBERNU BATZARRA

2014. 02. 28

**Alkatea:** Tolosako Udaletxean, bi mila eta hamalauko otsailaren hogeita zortzian, goizeko 10:00etan

**Ibai Iriarte San Vicente** Gobernu Batzarra bildu da ohizko bilera egiteko. Mahai-burua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak tratatzeko.

**Zinegotziak:**

**Rosa M. Urkola Irigoien**  
**Asier de los Rios Soraluze**

**Idazkaria:**

**Jose Luis Unanue Ugalde**

**Beh. Beh. Kontuhartzaitzako Teknikaria:**

**Amaia Olaetxea Amonarriz.**

- 1.- Aurreko akta onartzea.
- 2.- Ibilgailuen zerga: M.P.A.G.ren eskaera.
- 3.-Gurutze Gorriari obra baimenaren eta ihardueren tasaren salbuespena eta hobaria.
- 4.- 3/2014 zenbakia duen faktura-zerrenda.

### 1.- Aurreko akta onartzea.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2014ko otsailaren 21ean egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

### 2.- Ibilgailuen zerga: M.P.A.G.ren eskaera.

2014eko otsailaren 21ean, **M. P. A. G.**-k eskatu du Trakzio Mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren %50eko hobaria SS-2580-X ibilgailuarentzat, 25 urte baino gehiago edukitzeagatik.

Ibilgailuen gaineko Zerga arautzen duen Ordenantza Fiskalaren 6. artikulua zera dio:

***“Ibilgailu historikoek edo fabrikazio egunetik kontatuta gutxienez hogeita bost urteko antzintasuna dutenek % 50(e)ko hobaria izango dute zerga kuotan.***

***Fabrikazio eguna ez bada***

El 21 de febrero de 2014, **M. P. A. G.** ha solicitado la bonificación del 50 % en el Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica al vehículo SS-2580-X por tener una antigüedad superior a 25 años.

El artículo 6 de la Ordenanza Fiscal reguladora del Impuesto sobre vehículos señala lo siguiente: ***“Gozarán de una bonificación del 50 % de la cuota tributaria, los vehículos históricos o aquellos que tengan una antigüedad mínima de veinticinco años, contados a partir***

***de la fecha de su fabricación o, si***

***ezagutzen, lehen matrikulazio eguna hartuko da halakotzat edo, bestela, ibilgailu mota edo aldaera fabrikatzeari utzi zitzaien eguna.***

Eskaerak eskatutako baldintzak betetzen ditu, baina epez kanpo egin da (epea otsailaren 15ean bukatzen zen).

Dena den, Gobernu taldea eskatutakoa emateko prest dago ulertzen duelako atzerapena bost egunekoa bakarrik dela eta.

Beraz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## **ERABAKI DU**

**LEHENA**.- M.P.A.G.ri eskatutako hobaria 2014. urterako ematea..

**BIGARRENA**.-Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitza departamentuari eta interesatuari.

***ésta no se conociera, tomando como tal la de su primera matriculación o, en su defecto, la fecha en que el correspondiente tipo o variante se dejó de fabricar.”***

La solicitud cumple con los requisitos exigidos, pero se ha realizado fuera del plazo establecido (el plazo finalizaba el día 15 de febrero).

De todas formas, el equipo de Gobierno se muestra conforme en conceder lo solicitado, por entender que el retraso en la petición es de solamente 5 días aproximadamente.

Por todo ello, la Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

## **ACUERDA**

**PRIMERO**.- Conceder M.P.A.G., la bonificación solicitada para el año 2014.

**SEGUNDO**.- Dar cuenta de la adopción del presente acuerdo al departamento de Intervención y a la interesada.

### **3.- Gurutze Gorriari obra baimenaren eta ihardueren tasaren salbuespena eta hobaria.**

Gurutze Gorria-Cruz Rojak, 2011ko uztailaren 28an, jarduera eta obra proiektua aurkeztu zuen Madalen kaleko 2ko 5 eta 6 zenbakidun lokalak eta Uzturre kaleko 25eko 7 eta 8 lokalak erreformatzeko eta, bertan, errehabilitazio psikosozialeko eguneko zentroa, egoitza soziala eta larrialdietarako gune jarduera ezartzeko.

2011/1970 Alkatetza Dekretuaren bidez, jarduera lizentzia eman zitzaien eta, 2011/1797 Alkatetza Dekretuaren bidez, obraren baimena. Honen ondorioz, dagozkion tasa eta zergak likidatu zitzaizkion:

- . Obra baimenaren tasa: 3.347,50 €
- . EIOZ: 22.261,93 €
- . Jarduera tasa: 1.074 €

Gobernu Batzordeak, 2011ko azaroaren 11ean, 4.452,39 eurotako dirulaguntza ematea erabaki zuen, hau da, EIOZren %20, Gurutze Gorriak zuzendutako iharduerak behar gehien duten pertsoneri zuzenduak daudelako eta udalarentzat gizarte interes berezia duelako.

Honez gain, jabari publikoa okupatzeagatik 1.784,84 eurotako likidazioa pasa zitzaion (errekarguak eta interesak kontuan hartuz).

Bi mila eta hamabi garren urtean, aldiz, 2012/1050 Alkatetza Dekretuaren bidez, Madalen kaleko 2ko 3 eta 4 zenbakidun lokalak erreformatzeko eta jarduera ezartzeko baimena eman zitzaion. Ondorioz, ondorengo tasa eta zergak likidatu zitzaizkion:

- Obra baimenaren tasa: 3.442,90 €
- EIOZ: 6.791,97 €
- Jarduera tasa: 552,50 €

Gurutze Gorriak udalarekiko gaur egun dituen zorral honoko hauek dira:

	TASA	EIOZ	JARDUERA	DENERA
Jabari publikoa	1.784,84€			1.784,84€
Dk 2011/1797	3.347,50€	22.261,93€	1.074€	26.683,43€
Gobernu Batzordea: dirulaguntza		-4.452,39(%20)		-4.452,39€
Dk 2012/1050	3.442,90€	6.791,97€	552,50€	10.787,37€
<b>DENERA</b>	<b>8.575,24€</b>	<b>24.601,51€</b>	<b>1.626,50 €</b>	<b>34.803,25€</b>

Gaitera, bi mila eta hamalauko otsailaren 4ean, Gurutze Gorriak obra tasen eta EIO zergaren zenbatekoaren pareko dirulaguntza eskatu du. Zentro berrian egin duen inbertsioa handia dela azaltzen du, eta irabazirik gabeko erabilera sozio-sanitarioa duela.

EIOZ-ri dagokionez, Foru Arauak, 5.1. artikuluan, zera dio: ***“...udalerriek honako hobariak arautu ahal izango dituzte beren ordenantza fiskaletan zerga kuotaren gainean: a) 100eko 95era bitarteko hobaria, eraikuntzak, instalazioak edo obrak interes berezikoak edo udal onurakoak izendatuta daudenean zirkunstantzia sozial, kultural edo historiko-artistikoak izateagatik edo enplegua sustatzeko baliagarriak gertatzeagatik.”***

Tolosako Ordenantza Fiskalek, ordea, ez dute hobaririk aurreikusten obrak interes berezikoak edo udal onurakoak diren kasuentzako. Hau da, hobaria ez da aplikagarria.

Tasen inguruan ere ez da hobaririk edo salbuespenik aurreikusten.

Beraz, aipatutakoa kontuan izanik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## ERABAKI DU

**LEHENA**.- Tolosako “**GURUTZE GORRIA**”ri ez ematea eskatutako hobaririk edo salbuespenik.

**BIGARRENA**.- Bigarren eskaerari buruz, hau da, dirulaguntza emateari buruz aparteko espedientea tramitatzea, dagokiona erabakitzeko.

**HIRUGARRENA**.- Erabaki honen berri ematea Tolosako Gurutze Gorriari eta Kontuhartzaitza departamentuari.

### **4.- 3/2014 zenbakia duen faktura-zerrenda.**

Kontuhartzaitzak **3/2014** faktura zerrenda aurkeztu du; **80.003,19** €-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## ERABAKI DU

**LEHENA**.- **3/2014** faktura zerrenda onartzea.

**BIGARRENA**.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

**Gai zerrendatik aparte eta daukan premia kontuan izanik, ondoren aipatzen den gaia tratatzen da:**

### **Etxez-Etxeko zerbitzua. Ilarkiren faktura.**

Etxez Etxeko zerbitzua emateko, 2012ko abenduaren 28an sinatu zen kontratua Ilarki Elkargoarekin.

Hori horrela izanda, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## ERABAKI DU

**LEHENA**.- Onartzea Ilarki Elkargoak aurkeztutako faktura, 61.651,64 eurokoa, otsaileko etxez etxeko zerbitzuko orduen kontzeptuan.

**BIGARRENA**- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari, Osasun eta Gizarte Zerbitzuetako departamentuari eta Ilarki elkargoari.

**Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 11:15etan.**

**ALKATEA**

**IDAZKARIA**